

IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

UNITATEAREN DESKRIBAPENA

Azalpen testua da ikas-irakaskuntza prozesuan ikasleek sarrien aurkituko duten testu tipoa. Lehen Hezkuntzako hasierako urteetan idazki laburrak egiteak testu honen aspektu bereizgarriak kontuan edukitzeko beta ematen du. Hori dela eta testu instruktiboa aukeratu dugu H1ean eta inkesta baten txostena H2an azalpen testuari hurbiltzeko.

Unitate hau planifikatzerakoan, Natura, Gizarte Eta Kultura Ingurunearen Ezagueraren Curriculumean 7. blokean agertzen diren kontzeptuak dira makinaren funtzionamendua eta haien ezaugarriak ezagutzea eta lanbideak sailkatzea, aitzaki ona iruditu zaigu azalpen testuaren barruan testu instruktiboa eta txostena lantzeko.

Ulermen estrategiak leku handia hartu du proiektuan. Oztopo hori gainditzeko irakurketa guztietan lan prozedura berdintsua erabiltzea proposatzen dugu: denon artean irakurtzen hasi aurretik, zertarako irakurriko dugu?, aurre ezagupenak atera, zer esaten du tituluak?, zer dakizue honetaz?, zer kontatuko digute? ...Irakurri bitartean: ezagutzen ez dituzten hitzen esanahia aurkitu, lehenengo gure artean, testuan bertan egon daitezkeen pistekin, azkenean hiztegian begiratu. Amaieran, **kontzeptu mapa egitea** proposatzen dugu kasu gehienetan. Beste kasu batzutan laburtu, lehenago pentsatutakoarekin alderatu, galderak erantzun...

Unitatearen hasiera eta amaieran autoerregulazio jarduerak garrantzi handia dute Herriartasunerako Eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza arloko helburuak garatzeko. Aldi berean, partaidetza, erantzukizuna eta besteen iritziak errespetuz onartzea unitate honen oinarritzko irizpideak dira.

KOMUNIKAZIO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Gizakiak hasiera-hasieratik bere lana errazteko makinaren beharra izan du eta horrela asmatu zituen hainbat tresna. Gaur egun ere makinak erabiltzen ditugu eguneroko bizitza arruntan etxean, lanean, industrian eta abar, makina sinpleak zein konplexuak. Makina hauek ezagutzen neskek eta mutilek berdintasunez jokatzeko aukera izango dute.

Gizakiaren lana errazteko asmatu den makina sinple baten instrukzio testua idatzi eta haien erakusketa egitea ikastetxean izango da proiektu honen xedea.

PROIEKTUAREN ARDATZ KOMUNA

Testu tipoa: Azalpen testua

Eremua: Ikasketako hizkuntza

Gaia: Ikertzaileak gara

HELBURU OROKORRAK

Hizkuntza

1. Ahozko eta idatzizko azalpen diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio egoera berriei aplikatzeko.
2. Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, informazioa eman ahal izateko.
3. Hizkuntzen erabilpen-sistemei eta araei buruzko gogoeta egitea, hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian.
4. Azalpen testuak ulertuz irakurtzea ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak.

Inguruaren ezaguera

5. Tresnei buruzko ezaugarrien ezagutza zientifiko-teknikoan aurrera egitea aldeztu erabakitako gailu eta tresna sinpleak planifikatu eta gauzatzeko.
6. Tresnen erabilpenean egon daitezkeen estereotipo sexistak gainditzea.
7. Ingurune hurbileko datu esanguratsuetatik informazioa ateratzeko eta erabiltzeko estrategiak erabili eta ikaskuntzan aurreratu.
8. Gizarte-ingurune egoera, kontzeptuak grafiko bidez interpretatu, adierazi eta irudikatzea eta horixe bera egitea errealitate ekonomikoak eta historikoak adierazten dituzten bestelako adierazleekin, norberak bizi duen gizarte-errealitatea egoki ezagutzea lortzeko.

Tutoretza

9. Autoerregulazioa, norberaren erantzukizuna, besteen iritziak errespetuz onartu eta partaidetza aktiboa lantzea.

PROGRAMAZIOA

H1:Instrukzio testua

Komunikazio egoera

Gaia: Ikertzaileak gara. Makina sinpleak.

Igorlea: 2. zikloko ikasle taldeak

Hartzailea: Eskolako etapako ikasleak

Kanala: Idatzia

Asmoa eta helburua: Egindako makinak erakutsi eta eraikitze beharrezko instrukzio testuak.

Argitalpen lekua: Ikastetxeko pasabidea

Erabilpen eremua: Ikasketako hizkuntza

Testu tipoa: azalpen testua

Testu generoa: Instrukzio testua

Testu generoen errepertorioa

Kontzeptu mapa
Narrazioa
Asmakizunak
Deskripzioa
Errezetak
Instrukzio testua

UNITATEAREN BIZKARREZURRA

LAN SEKUENTZIAK	JARDUERAK
0. Proiektua irudikatzen	Makinak , zertarako? Ados jartzen
1. Informazio bila	1. Nolakoak dira makinak? 2. Zer da palanka? 3. Zer da plano inklinatua? 4. Zer dira gurpila, txirrika edo polea eta torlojua? 5.- Ezetz igarri!! 6.- Informazioa elkar trukutzen.
2. Makina sinpleak	7. Zer ikasi duzue makinei buruz? 8. Eman iezadazu helduleku bat eta mundua mugituko dut
3. Testua ezagutzen	9. Testu generoa ezagutzen 10. Nolakoak dira instrukzio testuak? 11. Gogoan izan! 12. zein bere lekuan 13. Sarrerako ideiak batzen 14 Non ote daude osagaiak? 15. Hau nahastea! 16. Antolatzaileak desberdintzen 17 Adi ibil hadi! 18. Moduak eta ekintzak adierazten 19. Ezazu/itzazu 20. Maliko autoa
4. Makinaren instrukzio testua idazten	21. Kontuan edukitzeko 22. Zirriborroak zuzentzeko laguntza daukagu 23. Eta amaitzeko.....

HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Azalpen testuetatik informazioa ateratzen jakitea.
2. Informazio nagusia kontzeptu mapen bidez adieraztea.
3. Hurrenkera egitura beste azalpen generoetatik bereiztea.
4. Instrukzio testuak genero gisa dituen ezaugarriak identifikatzea.
5. Idatzizko azalpen laburretan informazio zehatz eta ordenaturik ematea.
6. Azken ekoizpenari begira informazio egokia aukeratzea.
7. Denborazko elementuak zuzen erabiltzea.
8. Azalpena hurrenkera egituraren bidez ematen jakitea.
9. Hizkuntzaren elementuen hausnarketa.
10. Talde lanetan arduraz parte hartzea.
11. Ikaskideek esaten dutena errespetatzea .
12. Lana planifikatzea. Azken ekoizpena txukun eta modu erakargarrian erakustea.
13. Makina sinpleen ezaugarriak eta erabilerak ezagutzea eta bizitzarako duten garrantziaz jabetzea.
14. Egin beharreko makinaren sorkuntza prozesua planifikatzea eta eskura dituzten materialak erabiltzea.

EDUKIAK

KONTZEPTUZKO AK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZ KOAK
<p>Azalpen testuaren funtzio informatiboa</p> <p>Instrukzio testu generoaren ezaugarriak:</p> <p style="padding-left: 40px;">Hurrenker egitura Denbora antolatzaileak</p> <p>Aditzak eta aditzondoak</p> <p>Kontzeptu mapak</p> <p>Makinek gizakiaren lana errazteko egin eta egiten dituzten ekarpenak.</p> <p>Makina sinpleak : palanka, arrapala, polea, gorpila eta torlojua.</p> <p>Erremintak, aparatuak eta makinak erabiltzean, estereotipo sexistak gaindituz</p> <p>Zenbait makina sinple, (gorpila, txirrika, plano inklinatua, palanka eta torlojua) eta haien funtzioa</p> <p>Erraz egin daitekeen objektu edo makinaren bat planifikatu eta egin.</p>	<p>Ikasteko testuen ulermena</p> <p>Testuen egitura.</p> <p>Ulermen estrategiak</p> <p>Instrukzio testuaren planifikazioa eta ekoizpena</p> <p>Aditzak eta aditzondoak antzeman eta erabilpena</p> <p>Komunikazio egoera ezberdinetan parte hartu</p> <p>Ikasteko ahozko testuen ekoizpena</p> <p>Hizkuntzen arteko transferigarritasuna</p> <p>Irakurketa ozena</p> <p>Elementu grafiko eta paratestualen erabilpena</p> <p>Testuko denborazko lokailuak testuak ulertzeko eta idazteko</p> <p>Hiztegiaren erabilpena</p> <p>Gogoetarako gaitzat hartzea norberaren ikasketa, lanaren antolaketa, akatsa prozesu horren partetzat hartu beharra, eta nork bere buruari egindako zuzenketak eta ebaluazioa</p> <p>Makinak manipulatzeko eta behatzea daukaten funtzioa antzemateko.</p> <p>Makina sinpleen behaketa eta funtzionamendua azterketa.</p> <p>Gure inguruko makinei buruzko behaketa hausnarketa.</p>	<p>Ekoizpenen aurkezpen txukuna</p> <p>Idazketa informazioa eta jakintza eskuratzeko eta birlantzeko .</p> <p>Jarrera kritikoa mezu diskriminatzaileen aurrean.</p> <p>Literatura-testua komunikazio-bidetzat, bestelako munduak ezagutzeko iturritzat eta ongi pasatzeko aitzakiatzat.</p> <p>Gure bizimodua hobetzeko gizakiak asmatu dituen makinak aintzat hartzea.</p>

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ikasleak gai izan behar du:

1. Instrukzio testua beste azalpen testuetatik bereizteko.
2. Azalpen testuetatik informazioa ateratzeko eta kontzeptu mapen bidez islatzeko.(Torlojuaren kontzeptu mapa)
3. Hurrenkera egitura instrukzio testuetan erabiltzeko. (zirriborroan ikusteko)
4. Esaldi laburrak eta zehatzak idazteko. (zirriborroan ikusteko)
5. Informazio egokia emateko. (zirriborroan ikusteko)
6. Denborazko antolatzaileak zuzen erabiltzeko.
7. Aditzak eta aditzondoak bereizteko.
8. Besteen iritziak onartzeko.
9. Talde lanean inplikatzeko.
10. Kontrol zerrendaren laguntzaz lana planifikatzeko. (kontrol zerrenda)
11. Lanaren aurkezpen egokia egiteko (ekoizpenean)
12. Makinak direnak eta ez direnak ezagutzeko.
13. Makina sinpleen ezaugarriak eta erabilerak ezagutzeko (ariketak)
- 14.Makinaren sorkuntzarako interesa erakusteko.

0.SEKUENTZIA. PROIEKTUA IRUDIKATZEN

Motibazioa: Makinak, zertarako?

Motibaziorako, argazkiak erabiliz, makinaren lehen eta gaurko erabilpena eta beharra aztertu nahi izan dugu. Denon artean, dituzten esperientziez, ezagutzen dituzten makina zahar eta berriez, ... hitz eginez ikasleengan makinak ezagutzeko guraria sorraraztea da helburua.

Gero talde txikietan bilduta irudiak elkartu behar dituzte: makinak lehen eta orain, beti beharrezkoak izan dira lanak errazteko. Lana bera arinagoa egiten da makinei esker.


Talde handian eta irakaslearen laguntzaz, makinei buruz dakitenaz hitz egingo dute: zer diren, zertarako balio duten, zeintzuk diren, gure egunerokoan noiz aurkitzen ditugun... eta elkarriketa sortuko da gelan ikasleen aurre-ezagupenak kanporatzeko asmoarekin. Irakasleak batuko ditu ikasleen ideiak mural batean edo arbelean, saiaturiko da ideia guztiak lotzen eta sailkatzen aurrezagupenak bertan islatzeko.

Negoiazioa: Ados jartzen

Makinen jakingura sortuta badago, nolakoak diren ikertu beharko dutela ondorioztatu beharko da. Koadroan agertzen diren “zer egin, zertarako eta zer ikasiko dugun ” adostu behar da. Irakasleak, ikasleekin batera, baloratuko du zer kendu edo gehitu, beti ere ikasleen inplikazioa lortzarren eta umeen aurrezagupenak kontuan izanda. Une honetan eskatu ahal zaizkie umeei etxetik makinak ekartzea.

Ikusten denez, euskara arloko helburuak inguruneekin batera doaz. Etapako globaltasunak horretarako beta ematen du eta.

Jardueraren amaieran, autorregulazio ariketa bat dago. Ikasleek bakarka egiteko gogoeta proposatzen dugu eta nolabaiteko konpromisoa egin dezakete.



* Jardueren hasieran ikono hauek jarri ditugu, lantzen diren trebeziak aurreikusteko (entzumena, irakurmena, elkarrizketa, idazmena, ahozko adierazpena)

1.SEKUENTZIA. INFORMAZIO BILA

1.jarduera: Nolakoak dira makinak?

Helburua: Proposatzen den lehenengo jarduerak bi asmo ditu. Alde batetik makinaren ezagupenaren lehenengo hurbilpena egitea eta bestetik [kontzeptu mapak egiten ikastea](#). Euskeraz kontzeptu mapetan konektoreak galderak dira.

Prozedura:

- Hasteko, etxetik ekarritako makinak aztertuko dira eta gelan lekutxo bat prestatuko da eskura izateko. Irakasleak bere aldetik makina sinpleak egongo direla ziurtatuko du (artaziak, grapagailua, kortxo kentzekoa eta botila zabaltzekoa, torlojuak, labana, gurpila...). Ekarritakoak aztertuko dituzte, manipulatu hobeto ezagutzeko eta sailkatu daitezke makinak konplexu eta sinpleetan.
- Gero, 1.testua irakurriko dute talde handian. Irakurketa bitartean aurkitzen dituzten hitz berrien esanahia bilatuko dute: testuan bertan inguruko hitzen laguntzaz, dakitenek ez dakitenei azalduta edo hiztegiaren bidez testuaren ulermena ziurtatzeko.
- Kontzeptu mapa egiteko ordua. Ikasleei lagundu ahal diegu eskatzen badiegu testuak erantzun ditzakeen galderak pentsa ditzaten. Horiek idatzi ditzatela erdigunetik ateratzen diren marren gainean dauden laukietan. Azkenean muturretan erantzunak idatzi.

Makinak testua ondo ulertu duten frogatzeko, ikasleak saiatuko dira ikaskideei makinari buruz ikasi dutena azaltzen. Honetarako, binaka antolatuta eta kontzeptu mapan atera dituzten galderak lagunduta, ahozko azalpena emango diote bikotekideari.

Taldekatzea: Talde handian hasieran eta informazioa trukatzeko orduan bikoteka.

10.proiektua Ikertzaileak gara
Instrukzio Testua. Makina sinpleak
Gaztelaniako irakasleak, nahi izanez gero, gaia landu dezake helbide honek eskaintzen
dituen jarduerak eginez:

http://www.recurso.pnte.cfnavarra.es/ciengahi/b/02/animaciones/a_fb18_00.html

MAKINAK SINPLEAK

2. jarduera: Zer da palanka?

Helburua: Palankak ezagutzea manipulatzeko eta hiru elementuak aurkitzea. Kontzeptu mapa haien kabuz egiten hasia.

Prozedura:

- Ekarririkako palankak aztertu, manipulatu eta aurkitu potentzia, euste-puntua eta erresistentzia aurkitu.
- Palankaren testuaren mapa amaitu behar dute; galderak kokatu ditugu baina ez erantzunik. Lehenengo testua ondo irakurriko dute ikasleek. Ondo ulertzeko erabil ditzakete 1. testuan azaldu diren trikimailuak hitz ezezagunak ulertzeko, hots:
 - testuan bertan inguruko hitzen laguntzaz,
 - dakitenak ez dakienari azalduta edo
 - hiztegiaren bidez,
- Denbora zehatza eman ondoren, arbelean zuzen daiteke ariketa taldeek egiten dituzten ekarpenekin. Une egokia izango da gaiari buruz dituzten zalantza eta ezagupenez hitz egiteko.

Taldekatzea: Talde txikietan bilduta.

3. jarduera: Zer da plano inklinatua?

Helburua: Plano inklinatuaren erabilera ezagutu eta esperimendu. Kontzeptu mapa haien kabuz egiten jarraitzea.

Prozedura: Gelan dagoen materialarekin plano inklinatuak egin eta esperimendu. Beste pausu bat kontzeptu mapa aritzeko: galderak aurkitu mapa osatzeko. Amaieran komunean ipiniko dute. Ikusiko duzuen testu honetan galderak aurkitu behar dituzte.


Taldekatzea: Talde handian esperimendua eta talde txikian egingo dute mapa betetzea. Amaitutakoan denon artean zuzendu.



4. jarduera: Zer dira gurrupila, txirrika edo polea eta torlojua?

Helburua: Makina hauen erabilera ezagutu eta esperimendu. Kontzeptu mapa haien kabuz egiten jarraitzea.

Prozedura: Gelan dagoen materialarekin makina hauekin esperimendu. Behar izanez gero gurrupila eta torloju gehiago ekarri ahal dituzte etxetik. Hurrengo testuetan beste makina sinpleei buruzko informazioa ateratu behar dute eta mapetan kokatu. Talde bakoitzak testu bat aukeratu du eta ikasitako pausuak jarraituz dagokion kontzeptu mapa egingo du.

Taldekatzea: Talde txikietan hasi mapak egiten eta gela osoari eman beharko dizkiete ahozko azalpena.





5. jarduera: Ezetz igarri!

Helburua: Asmakizunekin disfrutatzea. Ulermena garatzea

Prozedura: Isilean irakurri ahal dituzte asmakizunak , zer den igarri, irudiak egin, buruz ikasi eta lagunei esan.

Taldekatzea: Bikoteka egin dezakete.

6. jarduera: Informazioa elkar trukutzen

Helburua: Ahozko azalpena prestatzea. Azalpenerako kontrol zerrenda betetzea. Gaztelaniako proiekturako ere baliagarria izango da.

Prozedura: Makina guztien informazioa lortu dutenean, talde bakoitzak makina baten ezaugarriak azalduko ditu gelakideen aurrean.. Hori egiteko denon artean finkatu beharko dute **zein** den eman beharreko informazioa eta **nola** egin behar den ahozko azalpena: doinua, abiadura arnasketa.....

Lehenengoz, ahozko azalpena egiteko eraz ohartzeko zerrenda batetik aukeratu beharko dituzte gomendio aproposak

Gero, zer esan behar den adostu eta KONTUAN EDUKITZEKOA beteko dute denen artean. Kontrol zerrenda honek beste aplikazio bat dauka: haien arteko ebaluaketa egitea. Taulan bertan egin dezakete : *gaizki, ondo edo oso ondo* jarritz

Marrazki bat egin dezakete azalpena laguntzeko.

Gogoratu behar zaie ikasleei emango duten eta jasoko duten informazioa baliagarriak izango direla hurrengo sekuentzian egin behar duten frogatxo ondo burutzeko. Ahozko azalpenerako gidoia, gaztelanian egingo duten informarean azalpenerako ere baliagarria izango da.

Jarduera amaitzeko, zein makina egingo duten pentsatu beharko dute. Beste [dokumentu](#) batean jarri ditugu proposamen batzuk, batzuetan makina batzuen izenen bidez eta besteetan web guneen bidez.

Irakasleak erabakiko du makina hori eskolan, plastika orduetan, edo haien kabuz egingo duten.

Taldekatzea: Talde handian kontrol zerrenda betetzeko eta talde txikian azalpena prestatzeko.

MAKINA EREDUAK

Adibide moduan eraiki daitezkeen makina batzuk hemen aipatzen ditugu. Komeni da eskura dituzten materialak erabiltzea.

- ☉ birabarkia <http://www.tomlitoo.com/decobrico/fleurdevent/>
- ☉ putzua <http://www.tomlitoo.com/decobrico/toupies/>
- ☉ gurdia <http://www.tomlitoo.com/lireenfete/mali/?help=activite.php>
- ☉ balantza <http://www.curiosikid.com/view/index.asp?pageMs=4854&ms=158>
- ☉ arrapala <http://centros1.pntic.mec.es/cra.via.de.la.plata/tecnogal.htm>
- ☉ polea <http://centros1.pntic.mec.es/cra.via.de.la.plata/tecnogal.htm>

2.SEKUENTZIA: MAKINA SINLEAK


7. jarduera: Zer ikasi duzue makinei buruz?

Helburua: : Makina sinpleei buruz ikasitakoa ziurtatzea.

Prozedura: Ariketa bakoitzean ematen diren aginduak.

2. ariketan palankaren erabilera batzuk agertzen zaizkigu irudietan. Makina sinple batzuk ekar daitezke gelara ikasleek indarra non egin behar den probatzeko.

Taldekatzea: Bikoteka egin dezakete.



3. ariketan: Ezagutzen ez dituzte hitzak hiztegian begira ditzakete. Horrela abezea birpasatzeko aukera emango diegu.

arrapala	zizela
kremailera	goldea
giltzarrapoa	aizkora

8. jarduera: Eman ie zadazu helduleku bat eta mundua mugituko dut

Helburua: Literaturari lekua ematea informazio iturri bezala.

Prozedura: Jarduera honetako testuan bi testu tipo aurki daitezke, narratiboa eta instruktiboa. Bata bestearengandik ezberdindu dezakete. Ulermena lantzeko irakurri aurretik tituluak ematen dituen ideiak atera, aurrezagupenak kanporatu..... Irakurri bitartean hitz ezezagunen esanahia aurkitu, amaiera igarri... Amaieran laburbildu.

Taldekatzea: Hasieran talde handian, irakurketa bera binaka edo talde txikian eta komunean jartzeko berriro talde handian.

3. SEKUENTZIA. INSTRUKZIO TESTUA EZAGUTZEN

9. jarduera: Testu generoa aukeratzen

Helburua: Testu genero bat erabili behar dute instrukzioak emateko, eta dauden bietatik zein den igarri behar dute. Beste proiektuetan landutako deskripzioa identifikatu behar dute, ezaugarriak gogora ekarri (zerbait nolakoa den azaltzeko balio duen testua) eta beste testuarekin alderatu (zerbait nola egiten den pausoz pauso azaltzen duen testua).

Prozedura: Argi dagoenean zertarako egingo duten jarduera, lehenengoz, testuak irakurri bakarka. Ondoren, ikasleek, irakaslearen laguntza eta txantiloian datozen galderak erantzuten, egokia den testu generoa igarri behar dute. Komunean gogoratu deskripzio testuaren berezitasunak eta beste testuaren berezitasunekin alderatu. Proiektuaren zertarakoa jakinda, egokia izango den testu generoa izendatu: **testu instruktiboa**.

Taldekatzea: Denon artean egiteko jarduera.

10. jarduera: Nolakoak dira instrukzio testuak?

Helburua: Instrukzio testuak aztertu nahi ditugu eta dituzten ezaugarriak bilatu ere.

Prozedura: “Eguzkia” eta “Zabua” testuak irakurri, beti ere, zertarako den jakinda. Proposatzen diren galderen bitartez adierazle hauek nahi ditugu landu:

- Testuaren atalak zeintzuk diren (Sarrera, materiala edo osagaiak eta urratsak)
- Atal bakoitzaren funtzioa zein den.
- Garapenaren hurrenkera egituraren markak (zenbakiak edo antolatzaileen bidez)
- Esaldien egitura
- Irudien presentzia

Taldekatzea: Talde handia.

11. jarduera: Gogoan izan !

Helburua: Instrukzio testuaren ezaugarriak finkatu.

Prozedura: Kanpoan dauden hitzak bere tokietan jarri behar dituzte Horrela laburbiltzen da testu genero honen ezaugarriak.

Taldekatzeta: Bikoteka edo talde txikian eta zuzendu denon artean.

12. jarduera: Zein bere lekuan

Helburua: Instrukzio testuaren hiru zatiak desberdintzea

Prozedura: gogoratu zein zen zati bakoitzeko funtzioa. Igarri behar dute koadroan agertzen diren esaldiak zeini dagozkien

Taldekatzeta: Bikoteka edo talde txikian eta zuzendu denon artean.

13. jarduera: Sarrerarako ideiak batzen.

Helburua: Instrukzio testuaren sarrera idazteko KONTUAK EDUKITZEKOA betetzea.

Prozedura: Makina sinpleen informazioa berrartu beharko dute sarrera egiteko. Lehenengo esaldian **zer den** adieraztea gomendatuko dugu

Taldekatzeta: Bikoteka edo talde txikian eta zuzendu denon artean.

14. jarduerak: Non ote daude osagaiak?

Helburua: 2. zatiaren funtzioa gogoratzea eta ulermena garatzea

Prozedura: Testuaren egitura gogoratu denon artean. Hiru zatiak desberdindu eta bakoitzaren ezaugarriak gogoratu. Irakurri eta osagaiak aurkitu.

Taldekatzeta: Hasieran talde handian eta irakurketa eta osagaiak topatzea bakarka.

15. jarduera: Hau nahastea!

Helburua: Denborazko antolatzaileen funtzioaz ohartu.

Prozedura: **Nola egin** zatia ordenatzeko antolatzaileak ematen duten laguntzaz ohartu behar dira. Haien izena esango diegu: **denborazko antolatzaileak** Horiek azpimarratu eta marretan idatzi.

Taldekatzeta: Bikoteka edo talde txikian.

16. jarduera: Antolatzaileak desberdintzen

Helburua: Antolatzaileak desberdindu eta ezagutu. Gaztelanian antolatzaile batzuk ezagutu dituzte. Hauekin alderatzea da helburua

Prozedura: Denon artean antolatzaileen funtzioaz ohartu beharko dira eta zeintzuk diren egokienak testu instruktiborako aukeratu beharko dute. Denborazko antolatzaileak eta ideiak lotzekoak nahastatu ditugu. Desberdinduko beharko dituzte eta geroago egingo duten makinaren instrukzio testuan erabiltzeko behar direnak borobildu.

Taldekatzeta: Talde handian

17. jarduera: Adi ibil hadi!

Helburua: Antolatzaileen funtzioa azpimarratu.

Prozedura: Ondo irakurri eta gero antolatzaileak azpimarratu. Pista garrantzitsuak izango dira bi instrukzio testuak ezberdintzeko eta banatzeko.

Taldekatzeta: Bikoteka edo talde txikian

18. jarduera: Modua eta ekintza adierazten

Helburua: Aditzak eta aditzondoak bereizten hasi. Instrukzio testuak aukera ematen digu aditza eta aditzondoak beste hitzetatik bereizteko.

Prozedura: Zerbait **nola egin** adierazten dituzten hitzak topatu beharko dituzte zakuan eta gero azpimarratu. Ondoren, **zer egin** adierazten duten hitzei erreparatu. Aditza eta aditzondoak direla esan dezakegu.

Gaztelaniako testuetan ere horrelako hitzak daudela azpimarratu daiteke. Adibideak eman ditzaten eskatu ahal zaie ikasleei.

Taldekatzea: Talde handian.

19 jarduera: Ezazu/itzazu

Helburua: Ezazu/itzazu aditz laguntzaileen erabileraz hausnartzea eta araua ondorioztatzea.

Prozedura: Irakurritako testuetan topa ditzatela eta azter dezatela zergatik erabiltzen den bat ala bestea eta gero idaztea bilatu duten araua.

Taldekatzea: Talde handian.

20.arduera: Maliko autoa

Helburua: Instrukzio testuaren egitura birpasatzea eta pausuak idazteko trebezia hartzen hastea.

Prozedura: Kasu honetan instrukzio testuaren hirugarren zatia, prozedura, idatzi behar dute jarduerako irudietan oinarrituz. Antolatzaileak, aditzak eta aditzondoak izango dute kontuan. Uste dugu momentu ona izango dela dituzten hutsuneak atzemateko. Komeni da hasieran ariketa ahoz eta talde handian egitea.

Taldekatzea: Hasieran talde handian eta gero bikoteka zein bakarka egin dezakete idazteko lana.

4. SEKUENTZIA: MAKINAREN INSTRUKZIO TESTUA IDAZTEN

Instrukzio testua garatzeko momentua heldu denez, lan-sekuentzian honetan horraino heltzeko pausoak emango dira.

Komunikazio egoera argi egon behar du dagoeneko: makina sinple bat eraikitzeko instrukzio testua idatziko dute, talde bakoitzak ikaskideei erakusteko.

Plangintza da egin beharreko lan sendoa, testualizazioa burutzeko.

Instrukzio testuaren lehenengo zatia eginda egongo da. Erabili duten materiala taldeak badaki eta makina egiteko emandako pausoak jakin badakite, baina idatzi egin behar dira.

21. jarduera: Kontuan edukitzeko

Helburua: Ariketa honen bidez testu instruktiboaren gainean ikasitakoa islatzen da eta guztiz erabilgarria izango da sortu behar duten testu berria egiterakoan.

Prozedura: Testu instruktiboaren ezaugarriak gogoratu beharko dituzte denen artean. Irakasleak ikusiko du zein den egokiena; koadroa hutsik eman eta arbelean idatzi eta gero txantiloian idatzi edo txantiloia erdi beteta eman eta falta diren hutsuneak

betetzeko. Bigarren zutabea lekua utzi dugu testua idatzi ahala markatzen joateko. Horrela ziurtatu nahi dugu kontrol zerrenda erabiltzen dutela eta ezaugarriak kontuan hartzen dituztela.

Instrukzioak idazterakoan kontutan edukitzeko	Egina
• Testu instruktiboan _____ zati desberdintzen ditugu.	
• Lehengo zatian, _____ buruzko informazioa ematen da.	
• Bigarrenean, egiteko behar diren _____ idatzi behar dira.	
• Nola funtzionatzen duen urratsak ordenatzeko _____ idatziko ditugu. Adibidez: hasieran, gero...	
• Denborazko antolatzaileak idatzi eta gero _____ jarriko dugu.	
• Ekintza nola egin behar den zehazteko _____ egokiak erabiliko ditugu. Adibidez: poliki-poliki, gogor...	
• Aditzen ondoan EZAZU ala ITZAZU idatziko dugu.	
• Aproposa den _____ gaineratuko dugu.	
• Zirriborroan ere, letra txukuna, ertzak... zainduko dugu.	
• Taldean lan egiteko: ideiak emango ditugu, besteenak entzungo ditugu, ados jarriko gara, lanak banatuko ditugu.	

Taldekatzea: Talde handian txantiloia betetzea. Talde txikian zirriborroa eta lehengo zuzenketa egitea.

22. jarduera: Zirriborroak zuzentzeko laguntza daukagu

Helburua: Zirriborroa zuzentzea. Garrantzi handia ematen diogu zuzentzeari. Hobekuntzarako aukera bezala ikustea nahi dugu.

Prozedura: Lehengo zuzenketa beraiek egin behar dute aurreko jardueran egindako KONTUAN EDUKITZEKO-arekin. Gero, beste ikaskideek eman ahal dituzte hobekuntzarako proposamenak. Bide batez testuaren ezaugarriak berriz ikustea lortzen dugu. Azkenean irakasleak esango du ondo dagoena eta zuzentzeko dagoena. Lehen bezala, irakasleak ikusiko du zein den egokiena; koadroa hutsik eman eta arbelean idatzi eta gero txantiloian idatzi edo txantiloia beteta eman.

ZER ZUZENDU	TALDE BATEK	IRAKASLEAK
<ul style="list-style-type: none"> Hiru zati desberdintzen dira? 	•	•
<ul style="list-style-type: none"> Lehenengo zatian, makinari buruzko informazio egokia ematen da? 	•	•
<ul style="list-style-type: none"> Bigarrenean, egiteko behar diren materialak idatzita daude? 	•	•
<ul style="list-style-type: none"> Hirugarren zatian pausuak ondo ordenatuta daude? 	•	•
<ul style="list-style-type: none"> Denborazko antolatzaileak erabili dira? Koma jarrita dago? 	•	•
<ul style="list-style-type: none"> Ekintza nola egin behar den azaltzeko aditzondo egokiak erabili dira? 	•	•
<ul style="list-style-type: none"> Ba al dago irudi aproposik? 	•	•

Idazki hau izan daiteke ebaluaziorako baliogarria.

Taldekatzea: Talde txikian.

24. jarduera: Eta amaitzeko...

Helburua: Egindako lanari buruzko gogoeta egitea.

Prozedura: Bakarka egiteko lana da, galderak irakurri daitezke zalantzak argitzeko. Unitatearen hasieran egindako hausnarketarekin bat dator beste hau. Amaieran komunean jarri daitezke komentarioak ikasleek horrela nahi badute.

Taldekatzea: Bakarka.

AZKEN EKOIZPENAREN EBALUAZIOA

Taldekideen izenak	Testuaren egitura: hiru zati ezberdintzen dira	1. zatia: informazio egokia ematen da	2.zatia: osagaiak edo materialak idatzi dira	3. zatia: hurrenkera egitura erabili da	Denbora antolatzaileak eta osteko koma erabili dira	Aditzondoak era egokian erabili dira	Aurkezpena: garbitasuna, irudiak...

10.proiektua Ikertzaileak gara
Instrukzio Testua. Makina sinpleak